

Euskara, hizkuntza nazionala: normalizazioaren behar larriaz

Iskanbila haundiekin hasi dugu urte berria: AEKk, edo euskal prentsaren parte batek, adibidez, Eusko Jaurlaritzarekin lehendik erabil zitzaketen auziez gain, oro har aspalditxoan kultur urak bare samar baldin bazetozen, etorri, bat-batean zalaparta uhin gaitzetan jarri digu euskal mundu osoa Mitxelenaren alde guztietarako ekaitzak, sortzaileak nahiz itzultzaileak, idazleak nahiz irakurleak, kupida gabe eraso dituela, eta UZEI (Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea), haren lankideak eta lanak berezi-bereziki astinduz.

JAKINen beti esan dugu, itxuragabekoak iruditzen zaizkigula euskaltzaleon arteko haserreak eta garrazkeriak, elkar ito beharrak eta ezin eramanak. Urrutira gabe, gure azken zenbakian bertan idazten genuen: «Denok iritsiko gara edo denok galduko gara. Segurua zera da: bakarrik ibili nahi lukeenaren suizidio ziurra» (21, 1981, 11).

Tamalez inoiz ez da faltatzen, eskandaloa sortu gabe, etxe barruan eta bakean egoten ez dakiena, egiten baino desegiten trebeagoa. Oraingoan, gainera, eskandaloak ezohizko zabalera hartu digu, ezohizko gogorkeriaz beste, familia behin betiko banatzeko eta hondatzeko arriskuan jarriaz. Diferentzien beharra aitortuz ere, edozein gizar-tek behar duen barne-lotura, euskaltzaleon elkarteak are behar-beharrezkoagoa duela uste dugu, euskararen proiektu nazionala aurrera atera nahi badugu, eta ez daukagula nolanahi arriskuan jartzetik, euskara bera jartzen delako arriskuan.

JAKINek, erremedio gabeko etxearen kaltea deitoratuz,

okerragoetara amil ez gaitezen, orain 25 urtekoa gogoratu beharra dauka istiluon aurrean: «Odol bat dugu. Gogo bat ere. Izkuntz bakarra. Aski dugu anai izateko». Eta azkeneko zenbakian esaten genuena: «Guri bezala zuei, denoi batera, etorkizuna eginkizun zaigu».

Haserreak haserre, alabaina, auzitan jarri den puntu baten aurrean JAKINEK ez dauka isiltzerik, argi eta garbi bere eritzia eman gabe: normalizazioaren arazoa da hori, euskararen hizkuntza nazional bezala normaltzearen arazoa.

* * *

Hizkuntza, arazo nazionala da: gutxienik, berorren alde on bat. Eta, zenbait kasutan, alderik nagusiena ere bai. Horretan, Euskal Herria ez da inola ere salbuespen bat: Euskara da euskal herriaren naziotasun-zutabe berezgarriena.

Gure herritasuna finkatzeko, herri berezi bat garela jakiteko eta adierazteko, euskara dugu kontzientziaren eustaille eta izan bagarenaren ispilu. Arrazaren biologismoa gaindituz, etniaren kulturtasunera iragateko tresna kolektiboa da hizkuntza.

Hizkuntza propioa duten gizarte nazionaletan baliorik garaiena eman izan zaio mintzairari. Euskal herriak ere arrazoi guztiak ditu euskara —bere hizkuntza propioa hemen ere— horrelaxe balioztatzeko.

* * *

Baina, gurea bezalako herri txikien hizkuntzak, sarritan, aterperik gabeko Historia triste batetik datoz. Bideko sasetan arima eta bizia urratu eta galduz, superbizi eta ozta-ozta aurrera irteteko lain izan dira bakarrik.

Horrelakoetan, eta gurean, mendetako ajeak eta gaitzak dakartza hizkuntzak, eta hil ala biziko sendabideak behar ohi ditu, bere izanean irauteko. Eta iraupena bera ere ezin liteke, bere iraupen huts eta gorrian, beste gabe aurrera atera: Gutxien gutxienik, gizarte oso bat —txikia nahi bada, baina osoa— bere izan- eta bizikizun guztiekin irabazi behar zaio mintzairari, geroan iraun dezan.

Hizkuntzarentzako gizarte-osotasun hori berreskuratzea-

ri normalizazioa esan ohi diogu orain. Itxuraz euskarari egokiera historiko bat suertatu zaion honetan ez da, beraz, harritzekoa hitz hori, eta kontzeptua bera, gaurkotasunik handienarekin agertu baldin bazaizkigu.

* * *

Normalizazicak lehiaketa bati erantzun nahi dio; une historiko jakin batetan hizkuntzak dituen tresna-gaitasunen eta gizarte baten mintzakizun-beharren artean oreka sortzea da normalizazioa. Ez historiatic kanpo eta ez, dagokion gizartetik urrundurik, lor liteke hizkuntza jakin baten normalizazioa.

Euskara normalizatzeari eguneratzea eskatzen du, hau da, gure garai hauetan mintzakizun direnak oro erosoki eta egokiro emateko tresna baliagarri bilakatzea. Azken mende t'erdian bereziki, euskara atzera eta atzera geratu zaigu, hizkera berrien eskakizunen aurrean mutu edo erdimutu geldituz. Premien aurrean ez-entzun, ez-erantzun egin behar izan du euskal hiztunak; horrela, lizunak estali, herdoilak jan egin dute hizkuntza. Bizitza sozialerako, zahartua ez-ezik, zaharkitua gelditu zaigu euskara, perle-siak jota. Esankizun modernoetan sistematikoki abiatu denak bakarrik daki, jakin, atzerakuntza horren mingarria. Eguneratze hau, ba, beharrezkoa eta are da.

Bestalde, hizkuntzaren eguneratze hori hemengo gure gizartean obratzekoa da, hots, gure arteko gizon-emakumeon artean. Gizarte honetako erlazio eta bizikizunak jaso behar ditu hizkuntzak, eta bereziki azken mendean atalka-atalka bazterreratu dituen bizipen sozial modernoak emateko trebatu.

* * *

Gizarte osoa da normalizazio-eginkizunetara erakarri behar dena. Lehen-lehen zutaina gizarte euskalduna da. Hamarkada hauetako belaunaldi gordinenari egokitzen zaio hizkuntz berreskurapen horren motore eta eragile izatea. Egiteko historikoa da gaurko euskaldunena, eta batez ere gaurko euskaldun gazte eta helduena.

Erdalduna, gizarte erdalduna alegia, halaber, erabat premiazkoa da, normalizazioaren egile bezala. Euskaldu-

nok erdaldunei hizkuntz proposamen bat egin beharrean aurkitzen gara (inoiz eske ere baditugu erdaldun horiek), baina proposamenak onargarria izan behar du, bere helburu, metodologia eta ekintzetan. Bestela, gerrate batetara goaz. Erdaldun horiei ere egitekoa beren betekizun nazional eta pertsonala bezala onartzen lagundu beharko diegu. Normalizazioa guztion zeregin kolektiboa da. Gizarte hobe batetarako pauso bizi eta pizgarria bezala erakutsi beharko diegu haiei gure asmoa.

Gizarte bat nahi dugu: batua eta integratua. Bidasoako mugan Hegoa/Iparraldea, aparte; Nafarroa/Estatutuaren hiru Probintziak, banatuta; bertakoak/etorkinak, aurrez aurre; «indio» euskaldunak beren hizkuntz erreseerbatik ezin irtenda; erdaldunak («frantsesak»/«espainolak»), gehienbat euskal arazotik urrun, eta abar luze bateko erdibiketak ditugun herri zorigaiztoko honetan, herri bat egiteko ere funts-funtsezkoa da hizkuntzaren normalizazioa. Gure gizarte honen ehodura eta mamidura euskara izan daiteke: bizikidetasun jator bat lortzeko, lagunarte erosoagoa eskaintzeko, bakea ahalbideratzeko... Helburu horregatik eta normalizazioan bertan —ekintza sozial bezala ere— egitasmo amankomun bateratzailea ikusten dugunez, normalizaziorako plangintza eskatzen dugu.

* * *

Normalizazio-asmoaren onarpen sozialak bizilagunon eguneroko bizitza antzaldatu behar du. Premia hau aipatzean, bada espreskiago aipatu nahi dugun zerbait: hiritar bakoitzaren lanaren mundua. Goizean hasi, eta orduen gurpilean etengabeki gauera arte bete ohi den egiteko arrunta erdalduna da, gehienbat, Euskal Herrian.

Jendearen eguneroko ogibidea euskaldundu behar da.

Industri iraultzak sortu zigun gizarte-moldea erdalduna izan zen, edota erdaldunduz joan zaigu. Lan industrialaren eta zerbitzuen munduak urrun geratu dira euskaratik. Eguneroko lan-arrazioa, berez zama izateaz gain, euskaldun gehienontzat zama erdaldun desnazionaltzailea gertatu da Euskal Herrian: Eguneroko zortzi-hamar ordutan erdaraz baliazera bortxatuta gaude gure lantegietan.

Euskal Herria ez da berreuskaldunduko, harik eta bere

biztanlegoaren langile-jendeak euskaraz lan egiteko aukera eroso eta normalik ez duen bitartean.

Helburu eta libertate horren bila, profesio-bizitza eta lantegi-mundua euskaldun bihurtuko dituzten plangintzak —orokorraren ondoan sektoreka eta profesioz burutze-koak— behar dira ondu. Esperientzia pilotoak, gizarteko lan-sektore zabalen eta erakargarrienei eskainiak. Badirudi, lan-esparruak sailez sail eraman beharko direla, ba-koitzaren hizkera ikasia arduraz eta espreskiago zainduz, hizkera adituago horiek ez bait dira noizbehinka erabiltzen direnak, norberak berean egunero ihardunaldi osoan zehar erabili behar dituenak baizik.

Galdetzekoa da, euskalduntze eta alfabetatze arruntak berak (orokorra eta guztiena izan nahi badu, bederen) nola lor daitezkeen, gizarte osoaren neurritan, beste alfabetatze adituago hauek garai berean landu gabe.

Eta hortik beste barruti batetara hurbiltzen gara: Hizkuntzaren normalizazioak eskatuko lukeen pedagogia kolektibora.

* * *

Normalizazioak ezinbestekoak dituen erabaki eta egin-kizunak gizartearentzat onargarri gerta daitezzen pedagogia sozial bat landu behar da, soziolinguistikaren jakiteak eta hizkuntz praxi sozialaren eskarmentua euskal gizartera egokituko dituen pedagogia bat. Jendearen borondatea irabazi, gogoak argitu, ekimena gidatu egin behar dira normalizazio-prozesuaren barnean.

Zoritarrez, euskaltzaleak berak ere ez ditzakegu eman, denak, irabazitzat. «Batua bai, batua ez» horretan bizkaitarren arazoa ez da borondatezkoa bakarrik: Bizkaieraren arrenkuretan arrazoi objetiboak daude, neurri batean bederen beste euskalkietakoentzat maiz ezezagunak direnak. Arazo horri heldu egin behar zaio adarretatik: Horretan lanegiteko plangintza eman, euskalkitik baturanzko bideak metodikoki landu. Dialektologiak eta soziolinguistikak elkarrekin ihardun beharko dute.

Eta egiteko honek ez du nahitaez arriskutan jarri behar hamar-hamalau urteren buruan batuaren alde moldatu dugun eritzi-bateratze zabala, nahiz eta zenbait «abildade» politikoren haizeek bat-bateko galerna latzez astindu gure

euskaltzalegoa. Berau bitan banatu gabe, beronek deitu behar du normalizazioan lanean nahi dugun euskaldungo osoa. Izan ere, gizarte-indarrak normalizazio-eginkizunetara inguratze honetan, euskaldun arrunta dator bigarren: Zalantzarik gabe, gure herriaren parte hau da gainerako guztiaren aldakuntzarako legamia. Baina Euskal Herriko biztanlego osoa da irabazi behar duguna, hau da, baita jendetza horren %75 erdaldun hori ere, eta gure etorkizunaren gakoa, beharbada, hementxe dago berezi-bereziki.

Eskurik onena beharko da gure gizartean euskara bizirik eta azkarki normalizatzeko.

Herritarren irudimen-sormenak iratzarri beharko dira, ekintza kultural paregabea izan litekeen euskal normalizatorako. Plangintza orokor eta berezien bidez, eguneroko ihardunetan eta ekinean nola erakutsi eta sentierazi jendeari berritu nahi dugun gizarte honen egitasmoa?

Herritar bakoitzak bere lanpostu naturala aurkitu beharko luke plangintzetan, batzuek ogibide bezala, gehienek militantzia lehiatsu batean. Hiritar bakoitzaren sormenak aurkitu behar du toki bat normalizazio-zereginetan: sor-keta gozagarria bilakatu beharko luke hizkuntzaren plangintza nazional horrek

Normalizazioaren praxi sozial burutsu batek hiritar guztioi kultur lanetarako berebiziko egokiera eskaini beharko liguke, eta ez litzateke hauxe izango pedagogia sozialik txarrena.

* * *

Normalizazioaren ekintza kolektibo handia, ostera, ez da lortuko baldintza minimo batzuk bete gabe. Esate baterako, alde aurretik helburuak egoki hautatu eta deskribatzea, agintariek plangintza definitzea, eginkizunen gidaritza soziala eta politikoa, jendearen lankidetzaren librea, tresna didaktikoen prestakuntza, eta abar. Baldintza horietatik bi dira berezikiago azpimarratu nahi ditugunak: normalizatorako plangintza eta jendearen onarpen librea.

Hizkuntzak politika linguistiko bat behar du, eta politika horrek plangintza eskatzen du, beti geure kontra etorri datozkigun urak eta uholdeak ere behingoz etxeko errortara, eta ez etxearen kontra zuzentzeko.

Plangintza horrek —formulazio itsu eta hanpatuetan galdu nahi ez badu— praxiaren labe gorian erakutsi behar du bere balioa: onartua den ala ez, beharretara egokitu ala ez, etab. Lehenengo plangintza orokorrean asmatzen ez bada, bigarren bat frogatzeko aukerarik gabe gerta gaitezke.

Gobernuari dagokio, noski, plangintza hori proposatzea, eta euskaltzaleok bederen zain-zain gaude zer eskainiko duen eta nola maneiatuko emandako hori, guztion gizartea goitik erabakitakoaren arabera moldatzeko. Beharbada, azken hilabeteetan, inongo plangintza osorik egin gabe ere, susmo txar gehiago piztu du, argirik baino.

Plangintzaren ondoan eta berorren zerbitzuan, jendearen onarpena eta borondatea segurtaturik ikusi nahiko genituzke. Ez dugu Gobernurik gabeko normalizaziotan sinesen, baina azkenean gizartea bera da hizkuntzaren normalizazioa egiaztatzen duena: Gobernu tresna da. Gizarte osoa da normalizazio-eginkizunetara erakarri behar dena: Plangintza ederrak batetik, eta haserre gaiztoak bestetik, ez da normalizaziorik egingo.

Eta badirudi, ditugun euskaltzale apurrak minduz eta uxatuz ez ditugula premiako plangintzak gehiegi langunduko...

Hizkuntzaren honelako une batetan, nagusitasun politiko garbiak ez du gutxi balio, herri osoaren ahalegina helmuga nazional baten atzetik eraman eta gidatzeko. Baina jokoak garbia izan behar du, gutxienez mesfidantza haunditxoak piztu ez ditzan. Hain zuzen, hizkuntzaren gidaritza politiko hura ezingo bait da bete, edota oso nekez eta dolorez bederen, gizarteko indar dinamikoenen kontra.

* * *

Gaurko euskaltzalegoaren heldutasunak —heldutasun erlatiboa, noski, beti izan ohi den bezala— bere helbururik onenak lortzeko, Aginte Politikoaren laguntza behar du ezinbestean. Hori aitortu, eta aitorten horren arabera jokatzek, ez du esan nahi, ordea, boterearen eta diruaren poderioz taldeak eta lagunak lotsarazi eta makurraztea dagoenik. Borondate onez eta elkarren beharraren kontzientziaz bi alde hauek —agintearena eta gure indar

kulturalena— elkarrenganatzetik ez balego, egokiera historiko onegia (azkena ala azkenaurrekoa?) galduko luke Euskal Herriak.

Gure euskaltzalegoak badu oraindik aski militantzia, eta kemen eta garbitasun, taxuzko plangintza ireki bati leialki erantzun eta bultzada emateko. Horrelaxe gerta dadin, aukera argi eta konkretu onargarriak proposatu beharra dauka agintea duenak. Eta hori, lehenbailehen, alderdi barruko eskatima aspergarrietan beste hamar urte galtzen ibili gabe.

Euskaltzaleok urte gutxi barru jakingo dugu EAJk euskara salba dezakeen ala ez. Agintean dagoen alderdiak —bi belaunaldi osotan kasik euskaltzale guztiak bildu zituen alderdiak—, nahi badu eta ez badu, laster erakutsiko digu zer dezakeen eta zer ez.

Guk, behintzat, nahiago genuke denok irabazle izan.

1982 - otsailean